




El Ayuntamiento de Ayala inicia la recogida de ideas para un espacio de ocio en el relleno de Ibaguen

En Ibaguen, junto a las piscinas municipales, el Ayuntamiento de Ayala ha llevado a cabo durante el verano un trabajo de relleno en el agujero que en su día se realizó para construir un polideportivo. En este nueva área se pretende instalar y optimizar un espacio de ocio y deporte teniendo en cuenta la disponibilidad económica del consistorio.

Para ello, el Ayuntamiento quiere fomentar la participación ciudadana en el proceso de diseño y ha confeccionado una encuesta para recoger ideas. El plazo para completarla será de un mes y su objetivo principal es recopilar todas las sugerencias, aportaciones y propuestas. Se puede acceder a las encuestas a través de un link que difundirá el Ayuntamiento y también de forma manual. En este último caso, en las oficinas munici-

pales. Igualmente, las encuestas están disponibles en los códigos QR que se encuentran bajo este texto, en castellano y euskara.



Ibaguenen, udal igerilekuen alboan, Aiarako Udalak lursail bat bete du, bere garaian polikiroldegiak eragindako zuloan. Espazio berri horretan aisialdirako eta kirolerako gunea sortu nahi dute, beti ere, eskuragarritasun ekonomikoa kontuan hartuta. Hori dela eta, inkesta bat prestatu du Udalak herritarren ideia guztiak jasotzeko. Inkesta betetzeko epea hilabete batekoa izango da. Udalak esteka zabalduko du digitalki, paperean udaletxean egongo da eta alboko QR kodeetan ere bete daiteke euskaraz edo gazteleraz.

Retirada del fibrocemento de los edificios públicos del municipio de Ayala

El Ayuntamiento de Ayala, tras la realización del censo de fibrocemento existente en edificios e instalaciones del Ayuntamiento y de las Juntas Administrativas, actualmente valora la retirada conjunta de este material

cumpliendo con ello la Ley 7/2022 sobre residuos y suelos contaminados para una economía circular. La Ley establece la obligatoriedad de la desaparición del fibrocemento de edificio públicos para el año 2028.

Aiarako Udala baloratzen ari da herriko eraikin publikoetan dagoen fibrozementua kentzea, aintzat hartuta derrigorrezkoa izango dela 2028an.

Alegazioak Zaraobe gainan eraiki nahi duten Igebela Solar proiektuari



Aiarako Udalak alegazioak aurkeztu zituen irailaren 14an Amurrion eta Aiaran Igebela Solar azpiegitura fotovoltaikoaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren aurka. Dokumentazioa Udalera heldu zen abuztuko zubiarekin eta ingurumen teknikarien oporrek batera. Beraz, alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskatu zuen erakundeak eta irailean ukatu zion Eusko Jaurlaritzak. Udalaren ustez, horrek babesgabetasun larria eragin du, udalerriak 24 herri baititu, eta horrek zaildu egiten du proiektuari buruzko behar den publikitate, azterketa eta adostasuna.

Alegazioen alderdi nagusiak honako hauek izan dira: Lurraldearen Arloko Antolamendurako Plan baten beharra, aurretik dauden edo izapidetzen ari diren antzeko beste proiektu batzuekiko metaketaren azterketarik eza, hautatutako lurretan eta lehen sektorean garatzen diren jardueren azterketarik ez egotea eta, azkenik, kokapen hori jarri nahi den tokia kontuan hartu ez izana Zaraobe Gaina; Aiarako leku enblematikoa, Aiarako agintariak eta herriaren ordezkariak biltzen ziren tokia baitzen.

El Ayuntamiento de Ayala ha presentado alegaciones al procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental de la planta fotovoltaica Igebela Solar en Amurrio y Ayala el pasado 14 de septiembre. El Consistorio quiere señalar que solicitó una prórroga para estudiar la documentación y compartirla con las Juntas Administrativas, pero que fue denegada generando evidente indefensión. Los principales aspectos de las alegaciones han sido la necesidad de un Plan de Ordenación Territorial Sectorial, la falta de análisis de la acumulación de impactos con otros proyectos similares existentes o en tramitación, la inexistencia de un análisis de las actividades que se desarrollan en los terrenos afectados del sector primario y finalmente no haber tenido en cuenta el enclave elegido; el Alto de Zaraobe, lugar emblemático para Ayala pues era el lugar donde se reunían las autoridades y la representación del pueblo de Ayala.

Energía solar para Etxaurren



La Ikastola Etxaurren sigue profundizando en su sostenibilidad energética y tras cambiar las luminarias interiores por tecnología LED y mejorar el aislamiento, ahora se dispone a instalar 120 módulos de placas fotovoltaicas en los dos faldones de cubierta orientados al sureste del edificio central. Además de reducir la emisión de gases de efecto invernadero, se generarán 50Kw de energía renovable. El proyecto cuenta con una ayuda del Departamento de Educación del Gobierno Vasco por valor del 60% del presupuesto presentado, un total de 76.023,86 €, IVA incluido. Igualmente, se ha tramitado recientemente una segunda solicitud de subvención al Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Alava, solicitud aún no resuelta.

Etxaurren Ikastolak energia jasangarritasunean sakontzen jarraitzen du eta horretarako plaka fotovoltaikoak instalatuko ditu bere teilatuan, negutegi efektuko gasen isuria ekiditeko eta 50 Kw energia ekoizteko eguzkiaren bitartez. Egitasmoak 76.023,86 euro balioko du eta %60ko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Aiarako Kuadrillak gogoratu du nola erabili behar den tamaina handiko bilketa zerbitzua modu egokian

Aiarako Kuadrillak tamaina handiko hondakinen bilketa zerbitzua eskaintzen du. Hondakin horiek, beraien tamaina edota izaeratik, ezin dira kaleko edukiontzietan utzi eta, biltzeko, Lerro Berdea aplikazioaren bidez jakinarazita

edo 900 101 476 doako zenbakari deitu ondoren, hurbilen dagoen edukiontzia alban utzi behar dira. Garrantzitsua da trasteak bilketa egunaren aurreko arratsaldean uztea, intzidentziak ekiditeko.

El Ayuntamiento recuerda que para hacer buen uso del servicio de recogida de voluminosos hay que depositar los objetos la tarde anterior e informar a la Cuadrilla en el 900 101 476 o en la aplicación.

LAIA Aiaraldea ahalduntzarako eskola abian dago jadanik



Urtero bezala, LAIA Aiaraldea Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolaren ikasturtea aurkeztu dute, irailaren 19an Laudion. Pasa den hilean hasita eta maiatza arte, hainbat ekintza antolatu dituzte emakumeen trebakuntzarako, Aiaraldeko ikuspegiarekin. Izan ere, Udalek, Kuadrillak, Aldundiak eta elkarteek antolatutako jarduera guztiak doakoak dira eta zabalik daude, emakumeek eraldaketarako eragile izan daitezten. Ikasturte honetarako Aiarako Udalak bi ekintza antolatu ditu, bata azaroan, inguru digitalean gertatzen diren eraso matxistei buruzkoa, eta bestea maiatzean, Zinegoak Festibaleko film laburren proiektzioa. Datozen egunetan, ikasturte osoko liburuxka postontzietan banatuko da. Hori bai, ekintza guztiak ez dira sartu eta gainerakoak kartel bidez joango dira zabaltzen. Hala, urriaren 10ean, Idazketa sortzaileko tailerraren aurkezpena egingo du Isabel Veiga irakasleak, Emakumeen Gelan, 18:30ean. Urriaren 19an, Biodantza tailerra hasiko da Luiaondoko Zentro Sozialean, aurten urritik ekainera arte. Izen-ematea: cayala.miren@ayto.araba.eus helbidea edota 686 587 889 telefono zenbakiaren bidez egin daiteke.

La Escuela de empoderamiento LAIA Eskola ha iniciado ya su curso en Aiaraldea. Junto a esta publicación se repartirá también el folleto que recoge parcialmente la programación de esta iniciativa destinada a formar, gratuitamente, a las mujeres de la comarca para que sean parte activa del cambio social. Así, en Ayala tendrán lugar dos actividades, una en noviembre sobre agresiones machistas en contextos digitales y otra en mayo con proyección de cortometrajes del festival Zinegoak. En cualquier caso, el libreto no contiene toda la programación y algunas actividades se difundirán mediante carteles. Es el caso del taller de escritura creativa de Isabel Veiga, que ella misma presentará el 10 de octubre en Emakumeen Gela a las 18:30 o el de biodanza, que comenzará en el Centro Social Otueta de Luiaondo el 19 de octubre, hasta junio. Las inscripciones se deben realizar en el correo cayala.miren@ayto.araba.eus o el teléfono 686 587 889.

Euskara ikasteko bekak



Urtero bezala, 2023ko urritik 2024ko irailera bitartean (data biak barne) euskara ikastaroak egin dituzten 16 urte edo gehiagoko aiararrek dirulaguntza eskatu ahaliko diote Udalari, euren eskubidea baita. Baldintza nagusiak dira; zentro homologatuetan ikasi izana, klasera joan izana eta maila gainditzeko hiru urte baino gehiago eman ez izana. Urriaren 1etik 31ra bitartean egongo da epea zabalik. Dirulaguntzaren deialdi ofiziala eta oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratu ziren, eta Udalaren webgunean eskura daiteke eskaera-inprimakia. Bertan azaltzen da zer agiri aurkeztu behar den eta zer baldintzatan jasoko den laguntza. Informazio gehiago, Aiarako Kuadrillaren Euskara Zerbitzuan: cayala.euskara@ayto.araba.eus / 677 566 245.

El plazo para solicitar la subvención municipal por haber estudiado euskera en centros homologados -acreditando la asistencia a clase- durante el pasado curso estará abierto hasta el 31 de octubre. Se puede obtener el formulario en la web municipal. Para más información: euskara@ayto.araba.eus o 677 566 245.

Aiarako Udalak esleitu ditu jadanik aurtengo dirulaguntzak herriko kultura eta kirol elkarteei

Herriko elkarteei urtero ematen dizkien dirulaguntzak esleitu ditu berriki Aiarako Udalak. Diru kopuruari dagokionez, 34.034 euro izan dira guztira, eta urteko gastu arrunten eta kirol eta kultura arloko jardueren zati handi bat finantzatzeko

modua emango die elkarteei ekarpen ekonomiko horrek. Gogoratu beharra dago ekintzak antolatu ez ezik, elkarteek bestelako baldintzak ere betetzen dituztela, berdintasunera edota euskararen erabilerari lotuak daudenak.

El Ayuntamiento de Ayala ya ha resuelto las subvenciones para los grupos y asociaciones culturales de la localidad. En total se han destinado 34.034 euros para sus actividades.

Euskararen asteburua



Aiarak euskararen asteburua ospatuko du urriaren 18an, 19an eta 20an. Aspaldi antolatzen dute egitasmo hau 24 elkarteak eta Udalak. Egitaraua ez dute guztiz zehaztu, baina asmoa, beti bezala, euskara aisialdiaren erdigunean jartzea izango da, ohitura bilakatu dadin bere erabilera.

Horretarako jarduera anitzak proposatuko dituzte bizpahiru, udalerraren ezaugarriak berak baliatuta. Tokiko erakundeak deia zabaltzen du ahalik eta jende gehienak parte har eta euskaraz goza dezan.

Beldur Barik Lehiaketa

Abian dago Beldur Barik Aiaraldea Lehiaketa, gazteen artean indarkeria matxista detektatu eta aurre egiteko helburuarekin, betiere biktimizaziotik eta estigmatizaziotik at. Bideo lehiaketa honen oinarriak www.beldurbarik.eus orrialdean daude eta parte hartzeko azken eguna azaroaren 8a izango da. Aurten, Sari-banaketa Artziniegan izango da, Topaketa Globalarekin batera, azaroaren 29an. 12 urtetik 20 urte bitarterainoko gazteek eman dezakete izena, hiru kategoriatan. Informazio gehiago: cayala.miren@ayto.araba.eus edo 686587889.

Udal ikastaroen talde guztiak sortu dituzte jadanik



Behin matrikulazio epea amaituta, honela geratu da ikasturte honetan Aiara Udalak antolatuko dituen ikastaroen zerrenda: Lantenon, Alzariak Berriztatzea, Mantentze Gimnasia eta Pilates. Arespalditzan, Yoga 1, Yoga 2, Jar Zaitetz Sasoiak, Adinekoentzako Gimnasia eta Ingeles Ludikoa. Luiaondon, Orratz eta Ehoziri Lanak, Adinekoentzako Gimnasia, Jar Zaitetz Sasoiak, Pilates 1, Pilates 2, Patinajea eta Ingeles Ludikoa. Baliteke horietako batzuetan bigarren matrikula epe bat irekitzea urtarril aldera, ikasle kopurua murrizten bada. Beste hauetan, berriz, jende gutxiegi izena eman du eta ez dira egingo: Arespalditzan, Eskulanak eta Patinajea, Izorian, Ilara Dantzak, eta Luiaondon, Sormenezko Joskintza. Gainera, aurten ere aurrera doa Triki eta Pandero Eskola, eta baita Lantenoko Euskara Ludiko tailerra ere. Udalerrian bertan euskara ikasteko deialdiari dagokionez, ez dira kopuru minimoak bete eta ez da talderik sortuko, ordea. Ea datorren urtean.

Una vez finalizado el periodo de matriculación, así ha quedado la lista de los cursos que organiza el Ayuntamiento de Ayala: En Llanteno, Restauración de Muebles, Gimnasia de Mantenimiento y Pilates. En Respaldiza, Yoga 1, Yoga 2, Ponte en Forma, Gimnasia para Mayores e Inglés Lúdico. En Luiaondo, Labores de Aguja y Bolillos, Gimnasia para Mayores, Ponte en Forma, Pilates 1, Pilates 2, Patinaje e Inglés Lúdico. Puede que hacia enero se abra un segundo periodo de matriculación en alguno de estos cursos, en el caso de que haya abandonos. No se llevarán a cabo por falta de gente: en Respaldiza, Manualidades y Patinaje, en Izoria, Bailes en Línea, y en Luiaondo, Costura Creativa. Por otro lado, siguen las clases de la Escuela de Triki y Pandero, así como el taller Euskara Lúdico de Llanteno, aunque no el grupo de AEK.

El Gazteleku prevé un octubre aterrador

En octubre el Gazteleku de Luiaondo se encontrará ya funcionando a pleno rendimiento. Los horarios de este espacio para adolescentes seguirán siendo viernes y sábado de 18:00 a 21:00 y los domingos de 17:00 a 20:00. Las

actividades del local para este mes van a estar muy condicionadas por Arimen Gauda, y una parte de su programación va a estar destinada, precisamente a trabajar con el miedo, aprovechando esta famosa celebración.



Whatsapp municipal

Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.